

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAGATIK ZERGA KALIFIKAZIOKO TXOSTENEN ESKAERAK AURKEZTEKO GIDA

Gida honen xedea da errazago egitea berrikuntza teknologikoko proiektuengatik zerga ondorioetarako kalifikazio txostenen aurkezpena

Enpresak berrikuntza teknologikoko proiektu bat baino gehiago egin baditu, eskaera bat aurkeztu beharko du proiektu bakoitzeko.

Arabako Foru Aldundiaren berrikuntza teknologikoagatiko zerga kalifikazioari buruzko txostena eskaeraren aurreko urterako egiten da. Jarduerak gauzatu ondorengo – ex post – txostena da.

Eskaerak 3 dokumentu izango ditu:

1. Proiektuaren memoria
 2. Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena beste erakunde batzuei ez zaiela aurkeztu urte honetarako eta proiektu bererako zerga kalifikazioko txostenaren eskaerarik.
 3. Erantzukizunpeko adierazpena, egiaztatzen duena aurkeztutako proiektua Araban egin dela eta enpresak zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duela.
- Hona hemen dokumentu horietako bakoitzaren laburpena:

1. PROIEKTUAREN MEMORIA (GEHIENEZ 25 ORRIALDE)

A. PROIEKTUAREN OINARRIZKO DATUAK

Proiektuaren izenburua, balizko akronimoa, hasiera eguna eta amaiera eguna.

Pertsona edo enpresa eskatzailearen identifikazio datuak: Izena eta bi abizen, NANA eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa. Eskaeraren arduraduna harremanetarako pertsona da, eskatzailearen plantillakoa, eta eskatzaileak izendatzen du aurkeztutako eskaerarekin zerikusia duen guztiari buruz Administrazioarekin komunikatzeko.

Baimenduaren identifikazio datuak: Izena eta bi abizen, NANA eta harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa. Baimendua pertsona fisikoa edo juridikoa da, eskatzailearen baimena duena bere ordezkari jarduteko.

B. LABURPEN EXEKUTIBOA (GEHIENEZ 2 ORRI)

Proiektuaren deskribapen argi eta zehatza: **helburua, hura garatzeko egin beharreko lanak**, enpresarentzako eta merkatuarentzako berritasun maila, eta horrek ekarriko duen **aurrerapen teknologikoa**.

Aurkeztutako memoriaren helburu den **ekitaldian garatutako egiteko** nagusiak eta eskatutako kalifikazio txostenaren helburu den zerga ekitaldian betearazitako aurrekontuaren laburpena.

Berrikuntza mailaren ideia argia ematen duen beste **edozein informazio garrantzitsu**, produktuaren/prozesuaren ikuspegitik (funtzionaltasuna, prestazio fisikoak) eta teknologiaren ikuspegitik.

C. ANTOLAMENDUAREN MEMORIA LABURRA (GEHIENEZ ORRI 1)

Erakundearen deskripzio memoria: Hauen deskribapena: jarduerak, produktu eta zerbitzu nagusiak, salmentak, esportazioak, bezeroak, pertsona kopurua, lantoki kopurua eta abar.

D. MEMORIA OROKORRA

Proiektuaren aurrekariak: Hauen azalpena: ideia nola sortu den, aurretik egindako jarduketak...

Proiektuaren ezaugarri bereizleak: Proiektuak dakarren berrikuntza modu argi eta ulergarrian definitzea, bai ezaugarriei dagokienez, bai lortu beharreko prestazioei, kostuei eta abarri dagokienez. Enpresan lehendik dauden produktu/prozesuekiko hobekuntza maila definitzea.

Berrikuntza teknologikoa: Adieraztea ordezkatu/erabili beharreko teknologiaren heldutasun maila, modu argi eta ulergarrian zehaztea proiektuak ikuspegi teknologikotik dakarren berrikuntza eta zein izango den berrikuntza teknologiko nagusia, nola lortuko den, proiektuak zenbateraino dakarren erronka/arrisku teknologiko bati heltzea. Enpresan lehendik dauden produktu/prozesuekiko aurrerapen teknologikoaren maila definitzea.

Merkatua eta lehia: Proiektuaren xede den merkatuaren deskribapena, zein den lehia, maila teknologikoa, antzeko produktuak eta prozesuak edo alternatiboak, bai eta kalifikaziorako aurkeztutako proiektuaren desberdintasun/abantaila nagusiak ere, prestazioen, kostuen eta teknologiaren ikuspegitik.

Espero den eragina: Azaldu zein izango den aurreikusitako eragina, honako hauei dagokienez: enplegua, ekonomia, gizartea edo bestelakoak; zein merkatu/bezerori zuzenduko zaion eta salmenta potentziala, kostuen murrizketa edo produktibitatea.

Aurreikusitako egutegia (ekitaldi batetik gorako iraupena duten proiektuen kasuan):

- Egikaritzeko epeak. Kronograma, faseen eta egitekoen xehetasunekin.
- Faseak: egitekoen deskribapen zehatza, hasiera eta amaiera datak, lortu beharreko helburuak, arduradunak, adierazleak, entregatzekoak...

Proiektua osorik gauzatzeko aurreikusitako kostuak, urte bakoitzerako honako hauek adierazita: faseak, barne gastuak, kanpoko lankidetzak eta aurreikusitako azpikontratazioak eta amortizazioak (ekitalditik gorako iraupena duten proiektuen kasuan).

E. EKITALDIAN EGINDAKO AURRERAPENAK

Ekitaldia baino iraupen luzeagoa duten proiektuen kasuan, kalifikazio txostena eskatzen den zerga ekitaldirako zehaztu behar dira lortutako garapenak, esku hartzen duten pertsona eta erakundeak, egindako lanen definizioa eta kostuen zehaztapena.

Egindako lanen kronograma eguneratua

- Gauzatzeko epeak: kronograma, gauzatutako faseak eta zereginak zehaztuta.
- Faseak: garatutako egitekoen deskribapena, hasiera eta amaiera datak, zer desbideratu edo aldatu den aurreikusitakotik, lortutako helburuak, arduradunak, mugarriak eta entregatzekoak ...

Proiektuan parte hartu duten **barne langileak**: izen-abizenak, titulazioa, proiektuan duten rola, proiektuan garatutako egitekoen deskribapena eta zehaztapena, egindako ekarpen teknologikoa.

Proiektuan parte hartu duten **kanpo erakundeak**: erakundea, erakunde mota, proiektuan duten rola, egitekoen deskribapena, egindako ekarpen teknologikoa...

Proiektua gauzatzeko **eskuratutako ekipo berria**: ekipo berria erosteko beharra proiektua egin ahal izateko, eta proiektuko zein fasetan erabili den.

Proiekturako laguntzak eta dirulaguntzak; proiektua garatzeko laguntzaren bat eskatu/lortu/kobratu den adierazi behar da, baita laguntza horien ezaugarriak, egoera eta dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

Ekitaldian egindako kostuak, garapen fase bakoitzeko barne gastuak, kanpo lankidetzak, azpikontratazioak eta egindako amortizazioak adierazita.

2. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ADIERAZTEN DUENA BESTE ERAKUNDE BATZUEI EZ ZAIELA AURKEZTU URTE HONETARAKO ETA PROIEKTU BERERAKO ZERGA KALIFIKAZIOKO TXOSTENAREN ESKAERARIK.

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak zerga ondorioetarako kalifikazio txostenak beste erakunde batzuei eskatu ez dizkieten enpresei eta proiektuei baino ez dizkie egingo.

3. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EGIAZTATZEN DUENA AURKEZTUTAKO PROIEKTUA ARABAN EGIN DELA ETA ENPRESAK ZERGA EGOITZA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN DUELA.

Enpresak Araban egina izan behar du bere proiektua, eta sozietateen gaineko zergari buruzko Arabako foru araudiaren mendeko zergaduna izan behar du, hau da, zerga egoitza Araban izan behar du.